BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA
BAO



## II. ATALA
## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Galdakaoko Udala

**Galdakaoko Udaleko egonkortze-prozesu berezien deialdiak eta horien Oinarri espezifikoak onartzea.**

Galdakaoko Udala

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
Foru moldiztegia- Imprenta foral

Honekin batera, iragarki bat bidaltzen dizuet Bizkaiko Aldizkari Ofizialean lehenbailehen argitaratzeko.

Galdakaon, 2022ko abenduaren 22an.

Iñigo Hernando Arriandiaga
Galdakaoko Alkatea.

GALDAKAOKO UDALA

**Galdakaoko Udaleko Egonkortze-Prozesu Berezien Deialdiak eta horien Oinarri Espezifikoak onartzea.**

2022ko abenduaren 22ko 2816 zenbakidun Alkatetzaren Dekretuaren bidez, Galdakaoko Udaleko Egonkortze-Prozesu Berezien Deialdiak eta horien Oinarri Espezifikoak onartzea erabaki da.

Horretarako, aipatutako lege-arauetan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikuluan eta II. tituluko IV. kapituluan, langileak hautatzeari buruzkoan, ezarritakoarekin bat etorriz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluko g) idatz-zatian emandako eskumenak baliatuz, honako hau ebatzi da:

<u>Lehenengoa.-</u> Galdakaoko Udalaren enplegua egonkortzeko prozesu berezietarako deialdia egitea, plaza-kopurua eta bakoitzari dagokion eranskina adierazita, honako hauetan:

| PLAZA | ERANSKINA |
|---|---|
| Ondarearen Arduradun Juridikoa | I eta dagokion I.1 eranskina |



Mikel Fuika Fuentes (1, guztira 2)
Idazkari Orokorra / Secretario General
Sinaduraren data: 22/12/2022
HASH: 566739917dad608878ffb95058c75a80fc

Iñigo Hernando Arriandiaga (2, guztira 2)
Alkate / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 22/12/2022
HASH: 5f351e8bb814f7f9c46adac41f4ab895

Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

| | |
|---|---|
| Hirigintzako Disziplinako Teknikaria | |
| Ogasuneko eta Zerga Kudeaketako Teknikaria | II eta dagokion II.1 eranskina |
| Fiskalizazio Teknikaria | III eta dagokion III.1 eranskina |
| Ehorzlea | IV eta dagokion IV.1 eranskina |
| Administrazio orokorreko laguntzailea (2) | V eta dagokion V.1 eranskina |

Dekretu honetan deitzen diren hautaketa-prozesuak Galdakaoko Udaleko egonkortze prozesu bereziak arautuko dituzten Oinarri Orokorretan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira.

Bigarrena.- Dekretu honen Igo eranskinetik V. eranskinera bitarteko oinarri espezifikoak onartzea, bakoitza bere Eranskinekin.

Hirugarrena.- Oinarri espezifikoak udalaren iragarki-taula elektronikoan, udalaren web-orrian, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, azken hori eskabideak aurkezteko epea zenbatzeko.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan.

Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

I ERANSKINA

**20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO OROKOR ESKALAKO TEKNIKARI AZPIESKALARI DAGOKIONA**

**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio Orokor eskalako Teknikari azpieskalako 2 plazarako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

| PLAZA KOPURUA<br><br>NÚMERO DE PLAZAS | LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA<br><br>PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS | EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.).<br><br>CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.). |
|---|---|---|
| 2 | Ondarearen Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico/a de Patrimonio | — Azpit / sub-grupo: A1.<br>— HE / PL: 3.<br>— Derr.-data / Fecha precep.: 29/12/2000.<br>— KH / CD: 26.<br>— LIBO 2022 / CEPT 2022: 27.618€ |
| | Hirigintzako Disziplinako Teknikaria / Técnico/a de Disciplina Urbanística | — Azpit / sub-grupo: A1.<br>— HE / PL: 4.<br>— Derr.-data / Fecha precep.: 31/12/2004.<br>— KH / CD: 26.<br>— LIBO 2022 / CEPT 2022: 27.618€ |

**2. – Parte hartzeko baldintzak.**

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – A1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 16,00 euro.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Zuzenbideko lizentziatura edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.

**3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.**

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, hizkuntza-eskakizuna bete beharko da, 3.HE Ondarearen Arduradun Juridikoaren lanposturako eta 4.HE Hirigintzako Diziplinako Teknikari lanposturako. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

**4. – Hautaketa-prozesua.**

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

**Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.**

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen **I.1. eranskineko** gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifiko hauen **I.1. eranskineko** gaitegi espezifikoaren ingurukoak izango dira.

**Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da** (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da, eta kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 5. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da nahitaezko 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaientzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Galdakaoko Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 5. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

**Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira** eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

a) Esperientzia: **30 puntu gehienez**

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

**Gehienez 10 puntu emango dira**, baremo honen arabera:



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Orokor eskalako Teknikari azpieskalan, edo Administrazio Orokorreko Teknikari kategorian, A1 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0’0046 puntu.

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Orokor eskalako Teknikari azpieskalan, edo Administrazio Orokorreko Teknikari kategorian, A1 azpitaldean, egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0’00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.– Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat (1) handiagoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 5 puntu.

A1: Unibertsitate-masterreko eta/edo doktoregoko titulazioa edo baliokidea (MECES 3. eta 4. mailak).

b.2.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 3,75 puntu.

b.3.– Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak)



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,5 puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.

b.4.- Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak baloratuko dira, 10 puntu gehienez, eta 2,5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
– Oinarrizko Internet.
– Microsoft Access 2000/XP/2003, oinarrizkoa.
– Microsoft Outlook XP/2003/2010.
–Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010, maila bakarra.
– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
– Microsoft Access 2000/XP/2003, aurreratua.
– Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana egiaztatzeko, IT Txartela ziurtapen-sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatzen badira, horietako bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

b.5.- Beste hizkuntza batzuen ezagutzak.

Ingeles, frantses edo alemanaren ezagutzak baloratuko dira Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko maila hauetan, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia badute, gehienez ere 2 punturekin, baremo honen arabera:

– C1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, Teknikari azpieskalan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

**I.1. ERANSKINA**

**GAI-ZERRENDA OROKORRA**

**1. gaia:** Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

**2. gaia:** Estatuaren lurralde-antolaketa. Alderdi orokorrak. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Euskadiren eskumenak: esklusiboak, legegintza-garapenekoak eta betearazpenekoak.

**3. gaia:** Europar Batasuneko zuzenbidea. Erakundeen ikuspegi laburra: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Batzordea, Parlamentua eta Auzitegia. Egintza juridikoak: erregelamenduak eta zuzentarauak.

**4. gaia:** EAEko antolaketa politikoa eta administratiboa. Printzipio orokorrak. Estatuaren eta EAEren arteko eskumen-banaketaren alderdi orokorrak. Eusko Legebiltzarrak. Eusko Jaurlaritza eta Lehendakaria.

**5. gaia:** EAEko erakunde erkideen eta lurralde historikoen arteko eskumen-banaketaren alderdi orokorrak. Kontzertu ekonomikoa. Toki-erakundeen eskumenak.

**6. gaia:** Justizia Administrazioa Euskal Herrian. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, esparrua eta osaera.

Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 107



eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**7. gaia:** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

**8. gaia:** Toki-erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu-egitura. Egitea eta onartzea. Aurrekontua luzatzea. Aurrekontua gauzatzea eta likidatzea.

**9. gaia:** Administrazio elektronikoa. Herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izatea. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta interneteko ataria, identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espedientea.

**10. gaia:** 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Normalizazioari buruzkoa.

**11. gaia:** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: printzipio orokorrak. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako (I. titulua, II. titulua).

**12. gaia:** 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, laneko arriskuen prebentzioaren arau-esparrua aldatzen duena.

**13. gaia:** 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa: xedapen orokorrak, pertsonen printzipioak eta eskubideak.

**HIRIGINTZA ZUZENBIDEA**

**14. gaia:** Lurraldearen antolamendua. Euskal Autonomia Erkidegoan arautzea. Lurralde-antolamenduko tresnak. Estatuko eta autonomia-erkidegoko hirigintza-legeria.

**15. gaia:** Hirigintza eta bere printzipio orokorrak Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 30eko 2/2006 Legearen arabera. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa: irizpide orokorrak.

**16. gaia:** Lurzoruaren sailkapena. Sailkapen bakoitzaren deskribapena. Lurzoruaren kalifikazioa eta 2/2006 Legean berariaz ezarritako kalifikazioak.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**17. gaia:** Hirigintza-antolamendua eta horrek lurralde-antolamenduarekin duen lotura. Hirigintza-plangintza: plan-motak eta horien izapidetzea. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

**18. gaia:** Antolamendu xehatua. Plan bereziak eta plan partzialak. Xehetasun-azterketak eta plangintzako beste figura batzuk: xedea, edukia eta izapidetzea.

**19. gaia:** Lurzoru-ondare publikoak: xedea eta motak; osatzen duten ondasunak eta baliabideak eta horien xedea; udalaren lurzoru-ondarerako aurrekontu-kontsignazioa; ondasunen besterentzea, udalaren lurzoru-erreserbak.

**20. gaia:** Gauzatzeko beste tresna batzuk: urbanizazio-proiektuak eta obra osagarrien proiektuak. Urbanizazio-obren kontserbazioa eta udal-harrera.

**21. gaia:** Hirigintza-antolamendua bermatzeko eta babesteko printzipio orokorrak. Hirigintzako lizentziak: lizentzia behar duten egintzak eta horien tramitazioa.

**22. gaia:** Hirigintza-legezkotasuna kontrolatzeko mekanismoak. Hirigintza-ikuskapena. Hirigintzako arau-hausteak eta zehapenak.

**23. gaia:** Administrazioaren esku-hartzea eta kontrola ingurumenean gorabeherak dituzten jardueretan. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa: kontzeptua, prozedura eta ondorio juridikoak.

**ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDE OROKORRA, FORU-ZUZENBIDEA ETA TOKI-ZUZENBIDEA**

**24. gaia:** Administrazioa legearen eta zuzenbidearen mende jartzea. Zuzenbide Publikoaren iturriak. Legea. Lege-motak. Ohitura. Zuzenbidearen printzipio orokorrak. Administrazio-jarduna.

**25. gaia:** Araudia: kontzeptua eta motak. Prozedura eta lanketa. Erregelamenduak egiteko ahalaren eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsaren mugak.

**26. gaia:** Prozeduran interesa dutenak. Jarduteko gaitasuna, interesdunaren kontzeptua, ordezkaritza. Administrazio-prozedurako interesdunak identifikatzea eta sinatzea. Pertsonek herri-administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**27. gaia:** Administrazio-egintza. Kontzeptua, elementua eta motak. Administrazio-egintzen betekizunak.

**28. gaia:** Administrazio-egintzen eraginkortasuna: autotutoretza deklaratiboaren printzipioa. Betearazpena eta etetea. Jakinarazpena: edukia, epea eta praktika. Emaitzarik gabeko jakinarazpena. Argitalpena.

**29. gaia:** Administrazio-egintzaren baliogabetasuna. Erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-egintzaren kontserbazio-printzipioa. Administrazioak berak egintzak eta xedapenak berrikustea. Deuseztasun-akzioa. Kaltegarritzat jotzea. Egintzak errebokatzea. Errakuntza materialak edo egitatezkoak zuzentzea.

**30. gaia:** Administrazio-errekurtsoak. Printzipio orokorrak. Gora jotzeko errekurtsoa. Aukerako berraztertzeko errekurtsoa. Berrikusteko errekurtso berezia. Administrazio-errekurtsoen ordezko prozedurak: adiskidetzea, bitartekaritza eta arbitrajea.

**31. gaia:** Administrazio-prozedurari buruzko xedapen orokorrak. Administrazio-prozedura erkideari aplikatutako bitarteko elektronikoak. Prozeduraren hasiera: eskaeren motak, zuzenketak eta hobekuntza. Eskabideak, idazkiak eta komunikazioak aurkeztea. Administrazio-erregistroak. Epe-mugak eta epeak: zenbaketa, luzapena eta presako izapidetzea. Antolamendua. Instrukzioa: interesdunen esku-hartzea, froga eta txostenak. Toki-erakundeen administrazio-prozeduraren berezitasunak.

**32. gaia:** Prozeduraren amaiera. Ebazteko betebeharra. Ebazpen espresuaren edukia: kongruentzia-printzipioak eta hasierako egoera ez larriagotzeko printzipioak. Amaiera konbentzionala. Esanbidezko ebazpenik eza: administrazio-isiltasunaren araubidea. Atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea. Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua.

**33. gaia:** Zehatzeko ahala: kontzeptua eta esanahia. Zehatzeko ahala baliatzeko printzipioak. Zehapen-prozeduraren berezitasunak. Administrazio-neurri zehatzaileak. Tokiko zehatzeko ahalari buruzko aipamen berezia.

**34. gaia:** Administrazio publikoen ondarea. Propietate publikoak: tipologia. Jabari publikoa, kontzeptua, izaera eta elementuak. Herri-jabariko afektazioa eta mutazioak. Jabari publikoaren araubide juridikoa. Erabilera: erreserba eta emakida.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**35. gaia:** Herri-administrazioen ondare pribatua. Araubide juridikoa. Administrazioaren ahalak eta eskuratze-, erabiltze- eta besterentze-araubidea. Domeinu publiko bereziak.

**36. gaia:** Toki-erakundeetako langileak: motak eta aplikatu beharreko araubide juridikoa. Enplegatu publikoaren kontzeptua. Enplegatu publikoei buruzko Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria.

**37. gaia:** Tokiko funtzionarioen ordainsari-araubidea. Erregulazioa. Oinarrizko ordainsariak. Ordainsari osagarriak. Funtzionarioen beste eskubide ekonomiko batzuk.

**38. gaia:** Langile publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen diziplina-araubidea. Zerbitzari publikoen erantzukizun zibila, penala eta ondarezkoa. Bateraezintasunen araubidea.

**39. gaia:** Sektore publikoko kontratuak: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedea eta eremua. Sektore publikoko kontratu motak. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuen eta zuzenbide pribatuko kontratuen araubide juridikoa; egintza bereizgarriak. Sektore publikoko kontratazioaren printzipio orokorrak: arrazionaltasuna, itunen askatasuna eta gutxieneko edukia, perfekzioa eta forma, kontratuen baliogabetasun-araubidea eta kontratazio-arloko errekurtso berezia.

**40. gaia:** Sektore publikoko kontratuetako alderdiak. Kontratazio-organoak, kontratisten gaitasuna eta kaudimena. Debekuak. Sailkapena. Kontratistaren oinordetza.

**41. gaia:** Herri-administrazioek kontratuak prestatzea. Prezioa, balio zenbatetsia. Prezioak berrikustea. Sektore publikoko kontratazioan eska daitezkeen bermeak. Kontratazio-espediente motak. Kontratuak esleitzeko prozedurak eta moduak. Esleitzeko irizpideak. Administrazio-kontratuak hobetzea eta formalizatzea.

**42. gaia:** Administrazio-kontratuak gauzatzea eta aldatzea. Administrazioaren prerrogatibak. Iraungitzea. Kontratuak lagatzea eta azpikontratatzea.

**43. gaia:** Obra-kontratua: prestatze-jarduerak, gauzatzea, aldatzea, betetzea eta suntsiaraztea. Obra-emakidako kontratua: prestatze-jarduerak, ondorioak, betetzea eta azkentzea.

**44. gaia:** Zerbitzu-kontratua: xedapen orokorrak gauzatzea eta suntsiaraztea. Zerbitzuak emateko kontratua: mugaketa eta araubide juridikoa.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**45. gaia:** Hornidura-kontratua: arautzea, gauzatzea, betetzea eta suntsiaraztea. Kontratu txikiak.

*Arau-erreferentziak informazio gisa ematen dira, eta, hala badagokio, hautaketa-prozesu honetako hautagaien erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiak jakitea eskatzen duena.*



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

**II. ERANSKINA**

**20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO BEREZI ESKALAKO TEKNIKARI AZPIESKALARI DAGOKIONA**

**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio Berezi eskalako Teknikari azpieskalako plaza 1erako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

| PLAZA KOPURUA<br><br>NÚMERO DE PLAZAS | LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA<br><br>PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS | EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.).<br><br>CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.). |
|---|---|---|
| 1 | Ogasuneko eta Zerga Kudeaketako Teknikaria/ Técnico/a de Hacienda y Gestión Tributaria | — Azpit / sub-grupo: A1.<br>— HE / PL: 3.<br>— Derr.-data / Fecha precep.: 28/02/2017.<br>— KH / CD: 25.<br>— LIBO 2022 / CEPT 2022: 27.735’36€ |

**2. – Parte hartzeko baldintzak.**

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – A1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 16,00 euro.

2.3.– Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Ekonomia edo Enpresa Zientzietako lizentziatura edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.

**3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.**



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 3. HE hizkuntza-eskakizuna betetzea lanposturako baldintza da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

**4. – Hautaketa-prozesua.**

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

**Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.**

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen **II.1 eranskineko** gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifiko hauen I**I.1 eranskineko** gaitegi espezifikoaren ingurukoak izango dira.

**Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da** (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da, eta kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 5. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 107

dituzten izangaientzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

**Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da** derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Galdakaoko Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteko dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 5. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

**Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira** eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

a) Esperientzia: **30 puntu gehienez**

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

**Gehienez 10 puntu emango dira**, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Berezi eskalako Teknikari azpieskalan, edo Ogasuneko eta Zerga Kudeaketako Teknikari kategorian, A1 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0’0046 puntu.

a.2. Berariazko esperientzia:



Balioztatze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Berezi eskalako Teknikari azpieskalan, edo Ogasuneko eta Zerga Kudeaketako Teknikari kategorian, A1 azpitaldean, egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0’00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.– Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat (1) handiagoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 5 puntu.

A1: Unibertsitate-masterreko eta/edo doktoregoko titulazioa edo baliokidea (MECES 3. eta 4. mailak).

b.2.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 3,75 puntu.

**37. gaia:** Administrazio-prozedurari buruzko xedapen orokorrak. Administrazio-prozedura erkideari aplikatutako bitarteko elektronikoak. Prozeduraren hasiera: eskaeren motak, zuzenketak eta hobekuntza. Eskabideak, idazkiak eta komunikazioak aurkeztea. Administrazio-erregistroak. Epe-mugak eta epeak: zenbaketa, luzapena eta presako izapidetzea. Antolamendua. Instrukzioa: interesdunen esku-hartzea, froga eta txostenak. Toki-erakundeen administrazio-prozeduraren berezitasunak.

**38. gaia:** Prozeduraren amaiera. Ebazteko betebeharra. Ebazpen espresuaren edukia: kongruentzia-printzipioak eta hasierako egoera ez larriagotzeko printzipioak. Amaiera konbentzionala. Esanbidezko ebazpenik eza: administrazio-isiltasunaren araubidea. Atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea. Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua.

**39. gaia:** Sektore publikoko kontratuak: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedea eta eremua. Sektore publikoko kontratu motak. Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Administrazio-kontratuen eta zuzenbide pribatuko kontratuen araubide juridikoa; egintza bereizgarriak. Sektore publikoko kontratazioaren printzipio orokorrak: arrazionaltasuna, itunen askatasuna eta gutxieneko edukia, perfekzioa eta forma, kontratuen baliogabetasun-araubidea eta kontratazio-arloko errekurtso berezia.

**40. gaia:** Sektore publikoko kontratuetako alderdiak. Kontratazio-organoak, kontratisten gaitasuna eta kaudimena. Debekuak. Sailkapena. Kontratistaren oinordetza.

**41. gaia:** Herri-administrazioek kontratuak prestatzea. Prezioa, balio zenbatetsia. Prezioak berrikustea. Sektore publikoko kontratazioan eska daitezkeen bermeak.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 37. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Kontratazio-espediente motak. Kontratuak esleitzeko prozedurak eta moduak. Esleitzeko irizpideak. Administrazio-kontratuak hobetzea eta formalizatzea.

**42. gaia:** Administrazio-kontratuak gauzatzea eta aldatzea. Administrazioaren prerrogatibak. Iraungitzea. Kontratuak lagatzea eta azpikontratatzea.

**43. gaia:** Obra-kontratua: prestatze-jarduerak, gauzatzea, aldatzea, betetzea eta suntsiaraztea. Obra-emakidako kontratua: prestatze-jarduerak, ondorioak, betetzea eta azkentzea.

**44. gaia:** Zerbitzu-kontratua: xedapen orokorrak gauzatzea eta suntsiaraztea. Zerbitzuak emateko kontratua: mugaketa eta araubide juridikoa.

**45. gaia:** Hornidura-kontratua: arautzea, gauzatzea, betetzea eta suntsiaraztea. Kontratu txikiak.

*Arau-erreferentziak informazio gisa ematen dira, eta, hala badagokio, hautaketa-prozesu honetako hautagaien erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiak jakitea eskatzen duena.*

Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 38. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

**IV. ERANSKINA**

**20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO BEREZI ESKALAKO ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALARI, OFIZIOETAKO LANGILE MOTARI ETA EHORZLE ESPEZIALITATEARI DAGOKIONA**

**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio berezi eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalari, Ofizioetako Langile motari eta Ehorzle espezialitateari dagokion plaza 1erako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

| PLAZA KOPURUA<br><br>NÚMERO DE PLAZAS | LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA<br><br>PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS | EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.).<br><br>CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.). |
|---|---|---|
| 1 | Ehorzlea / Sepulturero/a | — Azpit / sub-grupo: C2.<br>— HE / PL: 1.<br>— Derr.-data / Fecha precep.: 31/10/1994.<br>— KH / CD: 14.<br>— LIBO 2022 / CEPT 2022: 16.325’04€ |

**2. – Parte hartzeko baldintzak.**

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – C2 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 9,00 euro.

2.3. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, LH I, eskola-graduatua edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 39. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.**

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 1go HE hizkuntza-eskakizuna betetzea lanposturako baldintza da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

**4. – Hautaketa-prozesua.**

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

**Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.**

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen **IV.1 eranskineko** gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifiko hauen **IV.1 eranskineko** gaitegi espezifikoaren ingurukoak izango dira.

**Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da** (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da, eta kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 5. apartatuan aipatutako lekuetan.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 40. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da nahitaezko 1go hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaientzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

**Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da** derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat. Hizkuntza-eskakizunik bete behar ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Galdakaoko Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 1go hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 41. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 5. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

**Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira** eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

A) Esperientzia: **30 puntu gehienez**

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

**Gehienez 10 puntu emango dira**, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Berezi eskalako Zerbitzu Berezien



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 42. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

azpieskalan, edo Ehorzle kategorian, C2 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0'0046 puntu.

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Berezi eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalan, edo Ehorzle kategorian, C2 azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0'00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 3,75 puntu.

b.2.– Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,5 puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 43. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da, Zerbitzu Berezien azpieskalan emakumeen azpiordezkaritza dagoelako.

**IV.1. ERANSKINA**

**GAI-ZERRENDA OROKORRA**

**1. gaia:** Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak.

**2. gaia:** Euskal Herriko Autonomia Estatutua: Atariko Titulua.

**3. gaia:** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea: II. titulua.

**4. gaia:** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: printzipio orokorrak. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako (I. titulua).

**GAI-ZERRENDA ESPEZIFIKOA**

**5. gaia:** Galdakaoko Udalaren harrera eta hileta zibilak egiteko espazio publikoen erabilera arautzen duen ordenantza, 2019ko apirilaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (69. zk.) argitaratua.

**6. gaia:** Galdakaoko udal zutabeen emakida eta erabilera arautzen duen ordenantza, 2014ko abenduaren 17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 241. zenbakian, argitaratua.

**7. gaia:** Udal Hilerriko Barne Erregimenari buruzko Araudia, 1998ko ekainaren 1eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (101. zk.) argitaratua, eta horren ondorengo aldaketa 2002ko apirilaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (78. zk.) argitaratua (1. artikulutik 5.era).

**8. gaia:** Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasunari buruzko Erregelamendua:



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 44. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

xedapen orokorrak (1-3 artikuluak); gorpuen osasun-sailkapena, gorpuen eta gorpuzkien azken destinoa (4-12 artikuluak). I. eranskina (Gorpuak I. multzotzat kalifikatzen dituzten agente patogenoek transmititutako gaixotasun infekziosoen zerrenda).

**9. gaia:** Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasunari buruzko Erregelamendua: III. multzoko hilkutxak, belak eta hilotzak erakustea (13. artikulutik 15.era bitartekoak); gorpuak lurperatu eta lurpetik ateratzea (24. artikulutik 28.era bitartekoak); hilotzei eta gorpuzkiei buruzko osasun-baimenak (29. artikulua); erraustegiak eta hilerriak (40. artikulutik 50.era bitartekoak); ikuskapena eta zehapen-araubidea (51. artikulutik 53.era bitartekoak).

**10. gaia:** Lan-arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; xedea, aplikazio-eremua eta definizioak (1. artikulutik 4.era). Eskubideak eta betebeharrak (14tik 29ra bitarteko artikulua). Langileen kontsulta eta parte-hartzea (33. artikulutik 40. artikulura).

*Arau-erreferentziak informazio gisa ematen dira, eta, hala badagokio, hautaketa-prozesu honetako hautagaien erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiak jakitea eskatzen duena.*



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 45. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**V. ERANSKINA**

**20/2021 LEGEAREN 2.1 ARTIKULUTIK ERATORRITAKO EPE LUZEKO BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOEN EREDUA, ADMINISTRAZIO OROKOR ESKALAKO LAGUNTZAILE AZPIESKALARI DAGOKIONA**

**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio Orokor eskalako Laguntzaile azpieskalako 2 plazarako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

| PLAZA KOPURUA<br><br>NÚMERO DE PLAZAS | LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA<br><br>PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS | EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoak, etab.).<br><br>CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.). |
|---|---|---|
| 2 | Administrazio orokorreko laguntzailea / Auxiliar de Administración General | — Azpit / sub-grupo: C2.<br>— HE / PL: 2.<br>— Derr.-data / Fecha precep.: 30/12/1999.<br>— KH / CD: 16.<br>— LIBO 2022 / CEPT 2022: 19.246’92€ |
| | Administrazio orokorreko laguntzailea / Auxiliar de Administración General | — Azpit / sub-grupo: C2.<br>— HE / PL: 2.<br>— Derr.-data / Fecha precep.: 29/04/2021.<br>— KH / CD: 16.<br>— LIBO 2022 / CEPT 2022: 19.246’92€ |

**2. – Parte hartzeko baldintzak.**

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – C2 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 9,00 euro.

www.galdakao.eus | Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao | Tel.: 94 401 05 00 | IFK / CIF P4804400B

Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 46. orrialdea, guztira 107

2.3. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, LH I, eskola-graduatua edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.

**3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.**

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 2. HE hizkuntza-eskakizuna betetzea lanposturako baldintza da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

**4. – Hautaketa-prozesua.**

Hautaketa-sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

4.1. Oposizio fasea

Oposizio fasean bi proba egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

**Oposizio fasean gehienez ere 60 puntu eskuratu ahalko dira.**

4.1.1.– Lehen proba:

Teoriko-praktikoa izango da eta bi zati izango ditu:

A zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Galderak oinarri espezifiko hauen **V.1 eranskineko** gaitegi orokorraren ingurukoak izango dira.

B zatia: galdetegi bat izango da eta erantzuteko hainbat aukera izango ditu. Kasu teoriko-praktikoak izango dira eta oinarri espezifiko hauen **V.1 eranskineko** gaitegi espezifikoaren ingurukoak izango dira.

**Probaren gehienezko balioa 60 puntukoa izango da** (A zatiak 0-20 puntu artean eta B zatiak 0-40 puntu artean). Erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da, eta kanporatuak izango dira proba osoan 30 puntu edo gehiago eskuratzen ez dituztenak.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 47. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Epaimahaiak, proba egin eta gero eta dagokion erabakia hartuta, erantzun zuzenak argitaratuko ditu oinarri orokorren 5. apartatuan aipatutako lekuetan.

4.1.2. Bigarren proba, euskara proba: derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten lotutako lanpostuak dituzten plazak lortu nahi dituzten izangaientzat. Nolanahi ere, maila horretan euskararen ezagutza zehaztu eta egiaztatu beharko da.

**Proba hau Gaitzat edo Ez gaitzat joko da** derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazak lortu nahi dituztenentzat.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta badago, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio, berariaz, Galdakaoko Udalari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan ez dagoen beste edozein euskarako titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da, baina baliozkotuta, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera.
Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko denak, xedatutakoaren babesean 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEBn baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira aitortuko.

4.1.3.– Proben garapena.

Eskala, azpieskala edo kategoria bakoitzeko hautagaiak deituak izango dira probak egiteko deialdi bakarrean. Epaimahaiak hautapen probetan aukera eta tratu berdintasuna bermatzeko, proben deialdiko baldintzak aldatu ahal izango ditu haurdunaldi, erditze edo ezinbesteko bestelako arrazoiak direla-eta proba egitera joan ezin diren pertsonentzat. Inguruabar horiek, ahal den heinean, epaimahaiari jakinarazi beharko zaizkio proba egin aurretik, eta justifikazio agiriak atxiki beharko dira.

Epaimahaiak proba egiteko denbora eta bitartekoak egokituko dizkie egokitzapenak behar dituzten eta parte-hartze eskarian hala adierazi duten hautagaiei, eta horrela, gainerako parte-hartzaileekiko aukera berdintasuna izango dute, baldin eta horrekin probaren edukia hutsaltzen ez bada eta beharrezko gaitasun maila gutxitzen edo urritzen ez bada.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 48. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Hautaketa probak egitera joan ahal izango dira prozesuan onartuak izan diren pertsonak eta baztertuak izanda ere, egiaztatzen dutenak ebazteke dagoen gora jotzeko errekurtsoa jarri dutela. Identifikazio ondorioetarako probak egitera joango dira Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gidabaimenarekin.

Oposizio faseko proba bukatuta, epaimahaiak behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak jartzeko. Epe hori bukatuta eta hala badagokio aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak jendaurrean erakutsiko ditu behin betiko emaitzak.

Emaitzen argitaratzeak jakitera emango dira oinarri orokorren 5. oinarrian aipatutako lekuetan.

4.1.4.– Oposizio faseko puntuazioen zerrenda.

Oposizio faseko probak bukatuta eta hala badagokio, aurkeztu diren erreklamazioak ebatzita, epaimahaiak aginduko du gainditu dutenen puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratzea, eta sarbide txandaren eta modalitatearen arabera argitaratuko dira.

4.2. Lehiaketa fasea

**Lehiaketa fasean gehienez ere 40 puntu lortu ahal izango dira** eta puntuen baturak zehaztuko du baremo honen arabera:

a) Esperientzia: **30 puntu gehienez**

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan, deialdia egin duen administrazioan barne, dagokien hautaketa-prozesuaren muina diren arestikoekin parekatutako esperientzia, baldin eta zerbitzu horiek aurreko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo lanbide-taldeetan emandako zerbitzuengatik izandako esperientzia, eragin duen harremanaren arabera langile hori funtzionarioa zein lan-kontratuduna izan.

**Gehienez 10 puntu emango dira**, baremo honen arabera:



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 49. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Orokor eskalako Laguntzaile azpieskalan edo Administrari Laguntzaile kategorian, C2 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0'0046 puntu.

a.2. Berariazko esperientzia:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan emandako zerbitzuak berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa baloratuko dira, **gehienez ere 20 punturekin**, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Orokor eskalako Laguntzaile azpieskalan edo Administrari Laguntzaile kategorian, C2 azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0'00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Merezimendu akademikoak. **Gehienez 10 puntu** emango dira merezimendu hauengatik:

b.1.– Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoa baino maila bat (1) handiagoko titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 5 puntu.

C2: Batxiler-titulua edo teknikari-titulua, edo baliokidea.

b.2.- Lanpostuan sartzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (eskakizun gisa egiaztatutakoa ez beste bat), betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira: 3,75 puntu.

b.3.– Deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalei lotutako eta erakunde ofizialek (administrazio publikoko eskolak edo institutuak, administrazio publikoak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako edo homologatutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik, 0,5 puntu jasotako ordu bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 50. orrialdea, guztira 107

Galdakaoko Udala

b.4.- Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak baloratuko dira, 10 puntu gehienez, eta 2,5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, oinarrizkoa.
– Oinarrizko Internet.
– Microsoft Access 2000/XP/2003, oinarrizkoa.
– Microsoft Outlook XP/2003/2010.
–Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/ 2010, maila bakarra.
– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010, aurreratua.
– Microsoft Access 2000/XP/2003, aurreratua.
– Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana egiaztatzeko, IT Txartela ziurtapen-sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatzen badira, horietako bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

b.5.- Beste hizkuntza batzuen ezagutzak.

Ingeles, frantses edo alemanaren ezagutzak baloratuko dira Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko maila hauetan, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen eremu funtzionalarekin zerikusia badute, gehienez ere 2 punturekin, baremo honen arabera:

– C1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 51. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du eta plazarik eskuratu ez duten, baina lehiaketa fasea gainditu duten pertsonak egongo dira bertan.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, Laguntzaile azpieskalan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

**V.1. ERANSKINA**

**GAI-ZERRENDA OROKORRA**

**1. gaia:** Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak.

**2. gaia:** Euskal Herriko Autonomia Estatutua: Atariko Titulua.

**3. gaia:** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea: II. titulua.

**4. gaia:** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: printzipio orokorrak. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako (I. titulua).

**GAI-ZERRENDA ESPEZIFIKOA**

**5. gaia:** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Prozeduran interesdunak (3. artikulutik 12.era). Pertsonek herri-administrazioekiko harremanetan dituzten eskubideak. Administrazio publikoekiko harremanak elektronikoki izateko eskubidea eta betebeharra. Prozeduren hizkuntza. Erregistroak. Dokumentuak artxibatzea. Pertsonen lankidetza. Pertsonen agerraldia. Izapidetzearen erantzukizuna. Ebazteko betebeharra. Ebazteko gehienezko epea etetea (13. artikulutik 22.era).



Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 52. orrialdea, guztira 107

eek: BAO-2022e248-(II-6220)

Galdakaoko Udala

**6. gaia:** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Epe-mugak eta epeak. Administrazio-egintzen betekizunak. Egintzen eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (29tik 51rako artikuluak).

**7. gaia:** 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Ofiziozko hasiera (58. artikulutik 65.era). Interesdunak eskatuta hastea (66. artikulutik 69.era). Prozeduraren antolamendua (70. artikulutik 74.era).

**8. gaia:** 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (I): Xedapen orokorrak: Administrazio Publikoen organoak. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (5. artikulutik 13.era eta 38.etik 46.era).

**9. gaia:** Lan-arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; xedea, aplikazio-eremua eta definizioak (1. artikulutik 4.era). Eskubideak eta betebeharrak (14tik 29ra bitarteko artikulua). Langileen kontsulta eta parte-hartzea (33. artikulutik 40. artikulura).

**10. gaia:** Datu pertsonalen babesaren oinarrizko alderdiak: kontzeptuak, printzipioak eta eskubideak.

*Arau-erreferentziak informazio gisa ematen dira, eta, hala badagokio, hautaketa-prozesu honetako hautagaien erantzukizuna da emandako araudia etengabe egokitzea eta eguneratzea. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiak jakitea eskatzen duena.*

Baliozkotze Kod.: C2D4YTARQPRPGX5PTJ2JWNF25 | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 53. orrialdea, guztira 107



eek: BAO-2022e248-(II-6220)